

# Gaztetxe baten eskaera

## *Demande d'un Gaztetxe*

---



**2010eko txostena / Rapport de 2010**

Baionako Gazte Asanblada

[baionakogazteasanblada@hotmail.com](mailto:baionakogazteasanblada@hotmail.com)

## Aurkibidea / Sommaire

### Euskaraz:

1.	Sarrera.....	2
2.	Gazteen problematika.....	3
2.1	Baionako eskaintza kultura.....	3
2.2	Gazteantzako aktibitate gabezia.....	4
2.3	Gazteen partizipazio eskasa.....	6
i.	Perspektiba desberdin batean izanez.....	6
ii.	Bestetako CEM, esperientzi bat garatzeko.....	6
3.	Bitartekoa : Gaztetxea.....	7
4.	Orain arteko ekimenak.....	9
4.1	Baionako gazte asanbladaren lehen gaualdia.....	9
4.2	Herri olinpiadak.....	10
4.3	Santa ageda.....	10
4.4	Ihauteriak.....	11
4.5	Baionako pestak.....	11
5.	Beste gaztetxeen adibideak.....	11
5.1	Emaitza Gaztetxea: Kanbo.....	11
5.2	Bota Gaztetxea: Donaixti.....	12
5.3	Aldaka Gaztetxea: Donapaleu.....	12
6.	Ondorioa.....	13

### En français:

7.	Introduction.....	14
8.	La problématique des jeunes.....	15
8.1	Bayonne, les jeunes et la culture basque.....	15
8.2	Le manque d'activité pour les jeunes.....	16
8.3	Le manque de participation des jeunes.....	17
i.	Se placer dans une perspective différente.....	17
ii.	La CEM des fêtes, une expérience à développer.....	18
9.	Solution: Un Gaztetxea.....	19
10.	Les initiatives organisées jusqu' à maintenant.....	22
10.1	La première soirée de la gazte asanblada de Bayonne.....	22
10.2	Olympiades.....	22
10.3	Santa ageda.....	23
10.4	Carnaval.....	23
10.5	Les fêtes de Bayonne.....	23
11.	Exemple des autres Gazttxe.....	24
11.1	Gaztetxe Emaitza : Cambo les bains.....	24
11.2	Gaztetxe Bota : Saint-Just-Ibarre.....	24
11.3	Gaztetxe Aldaka : Saint Palais.....	24
12.	Conclusion.....	25

## 1. SARRERA

Gure herrian eragin nahi dugun baionar gazte talde bat gira. 2008ko irailean bildu  
ginen lehen aldiz, ahoz-ahoko deialdiaz gure lagun eta auzoak gonbidatuz.

Gure helburua ez da lukratiboa ez eta ere lagunen artean festa egitearena. Gure  
borondatea baionar guzien eskura jarri nahi dugu, izan zahar edo gazte.

Baiona hiri erakargarria izatea nahi dugu, iniziatiba herritar eta berezkoetan  
erreferentzia bilakatuz. Iniziatiba horiek bil litzazkeen gune bat sortu nahi dugu,  
bakoitzak bere ahalak uztartu, bata eta bestearen ideiak trukatu eta Baionako  
bitezta soziala dinamizatzeko ekimen bultzatzaileak sortuz. Ekimen horiek kulturalak  
eta parte-hartzaileak izatea nahi dugu. Etengabe aldatzen ari den euskal kultura bizi  
batzen aldekoak gira.

Gaztetxea, literalki, « gazteen etxea » da. Haatik, definizio literal horretatik haratago  
proiektu oso bat da hitz horren gibelean gordetzen dena.

Txosten honen bidez, gure desmartxaren arrazoinak (zerk bultzatu gaituen  
elkartzera) eta gure proposamenak zein diren esplikatu nahiko genizueke baita  
orain arte burutu ditugun ekimenen berri eman ere. Aitzina segitzeko lagun  
gaitzakezue.

### **Baionako Gazte Asanblada**

## 2. GAZTEEN PROBLEMATIKA

### 2.1 Baionako eskaintza kultura

Baiona, Euskal Herriko hiri garrantzitsuenetako bat da. Lapurdiko hiriburua, historikoki gertaera anitzen kokalekua izan da eta hortaz, gaur egun, kultura ezberdinen arteko elkargunea bilakatua da. Euskal Kulturari dagokionez, bere presentzia ukaezina da eta Baionako herri bizian leku importantea okupatzeazgain, herritarrek harekin gozatu ahal izateko eskaintza zabala dute.

Euskal Museoa da horietarik adibide bat. Urte osoan zehar, Baionako herritarrei zein kanpotik etorritakoei, Baiona eta orohar Euskal Herri osoa ezagutzeko parada eskaintzen zaie, iraganak eta orainak elkar jotzen dutelarik. Beste adibide argi bat, Baionan Kantuzen jarduera da. Euskal Kantuaren bitartez, euskaldun eta erdaldunak elkartuz, euskaraz, momentu lasai eta arin bat elkarrekin pasatzera konbidatzen ditu.

Baionan kokatuak diren hainbat elkartek ere euskal kulturaren hainbat alorretan lan egiten dute. Adibide azpimarragarriena Orai Bat da. Dantza, musika... euskal kulturaren zati diren hainbat diziplinatan trebatzeko parada ematen die gazte eta ez hain gazteei.

Puntualki, ekimen ezberdinak antolatuak dira. Sagarno Eguna, Santa Ageda... Baionako festetan ere, euskal kulturak bere kokalekua izan ohi du Karrikaldiaren baitan. Ekimen hauek baina, ez dira herriko etxeak antolatuak, nahiz eta batzuetan, bere laguntza eskaini.

Baionan burutu ohi diren kultur jardueren adibideekin zerrenda luzea osa genezake, baina, ez da hori gure helburua.

Hain zuzen ere, eskaintza kulturala zabala da, baina, nun dira gazteak? Eskaintza kulturala eta bertan gazteek duten presentzia alderatuz, nubait arazo bat badela ohar gaitezke. Baionan Kantuz ekimena hartuz adibide gisa, antolatzaile eta parte hartzaileen adin bataz bestekoa egin behar bagenu, hurbilago ginatezke 50 urteetatik, 20 urteetatik baino. Euskal Museoari dagokionez aldiz, egia da langileen artean gazteak aurki ditzazkegula baina, Baionako gazteetatik zenbat joan dira

nehoiz museoa bisitatzena? Kopuru zehatzik ezin genezake eman, baina, anitz ez dira izanen.

Karrikaldia gutxi gorabehera, Baionan Kantzen ildo beretik joan da eta onartu beharra da, gazteen presentzia aski urria izan ohi dela. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da antolatzaileen lana. Urtez urte, ezsena gaineko animazioetan parte hartzen duten gazteen presentzia areagotzen saiatu direla, eta horrek, geroz eta gazte gehiago erakarri ditu. Orai Bat elkartea proposatu ekimenetan gazteek parte hartzen dute. Baina diziplina berezitu batzueta eta puntualki baizik ez dira agertzen.

Sagarno Eguna da gure azterketatik libratzen den bakarra, baina, duda sor daiteke, euskal kulturaren maitasunez edo sagarnoaren prezio merkeaz erakarririk agertzen diren.

Ez al dira euskal kulturaz interesatzen? Beste hainbat lekutan ikusi dugunak erakusten digu hori ez da hala. Orduan zer gertatzen da? Guk bi arrazoi ikusten ditugu. Alde batetik eskaintza kulturala ez dela Baionako gazteei egokitua eta bestetik, ez zaiela erakargarria.

Gazteek kudeaturiko egitura baten beharra agerikoa da. Gazteen artean, bakoitzak dakieta besteei erakustea litzateke printzipioa, deneri irekia eta urririk. Gazte etxe izateazgain Gaztetxea kultur etxea ere bada.

## 2.2 Gazteentzako aktibitate gabezia

Normalean eta kasu gehienetan, Baionako gazteak ikasten ari dira, lan munduan sartuak dira edo ikasketa eta enplegu gabeko garai batean aurkitzen dira.

Hasteko, gazte hauek (kasu gehienetan), beren aste egunetako arratsaldeak libre dituzte, lana bukatzen dutelako edo eskolatik ateratzen direlako. Horrezgainera, beti ere kopuru handienean, gazteek asteburu guztia denbora libre gisa dute. Horrekin erran nahi dugu, Baionako gazteriak denbora libre asko eta aski duela aktibitate batzuk burutzeko.

Aktibitate eskaera bat badela ez du nehork dudan jartzen. Hein batean Baionako herriko elkarteen erantzuten diote galde honi, hala nola Aviron Bayonnais elkartea dituen kideak lekuko.

Baina posibilitateak murritzagoak dira beste aktibitate batzuk, mendi aktibitateak ala debate ideologikoak bestek beste, praktikatu nahi dituzten gazteak badira aipagai. Alta, iduritzen zaigu aisialdien eterogeneizazioa dela oreka sozialaren oinarrietaiko bat.

Beste arazo bat ere sortzen zaigu : aktibitatea eta ekonomiaren arteko lotura estua. Denok dakigu gazteen egoera ekonomikoa ez dela ditziratsua. Normalean gazte batek ez du enplegurik edo enplegu prekario baten menpe da. Bi kasuetan, gazteak ez du erosotasun ekonomikorik bizi. Aisaldirako edozein aktibitate burutzeko, gehiegizkoa iruditzen zaigun diru zama bat ordaindu beharra da.

Horrezgain, gurasoentzat ere aktibitate baten pagatza zama bat bezala hartua da. Langabezia emendatzen ari den krisi egoera honetan, familiek geroz eta eros ahalmen gutiago dute. Horren ondorioz, aktibitate baten ordaintza arazo gisa kontsideratua izan daiteke familia askotan.

Orduan, alde batetik gaztea beraren egoera ekonomiko txarra dugu, baina baita ere bere familiaren aktibitatea pagatzeko ezina. Kontutan hartu beharrekoa dugu ere, gaur egungo testuinguru txar hau : krisialdia.

Azkenik, aipatzeko den esparru importante bat iruditu zaigu : elkar ezagutza bultzatzen duten aktibitateak. Gaur egun gazteen harremanen hasiera, ikasketa eremutik-at, ostegun eta ostiral gaueko ateraldiaren bidez egiten da (askotan mozkor itsusi batekin bukatzen dena). Gure ustetan, elkar ezagutza gizartearen oinarri bat da, gurea ere den Baionaren iraupenerako beharrezkotzat jotzen dugu. Ildo hortatik, ezagutza bultzatzeko aktibitateen garapen bat eratu nahi ginuke. Lehen aipatu bezala, gaur egungo erlazioen sorrera moldea, parte handienean festaren bitartez egiten dela ohartu gira. Hortaz oharturik, harreman berriak sortzeko aktibitate berri batzuk eratuz joan nahi ginuke. Molde berri batzuk sortuz, elkar ezagutza areagotuko litzateke eta elkar bizitza hobetuko.

Atal honen ondorio nagusi gisa, erran dezakegu Baionako herriak bizi duen aktibitate ainitzasuna oraino garatu daitekeela. Ondoren, egoera ekonomikoa dela eta, aktibitateen prezioak berauen praktikatzeko ahal ezina sortzen dute : prezioen heina altua. Horrezgain azken ondorio gisa elkar ezagutzaren desbalorazioa eta jaustea aipatu dugu. Elkar bizitzaren oinarri den harreman sorrerarako aktibitateen eraketa bat bultzatzeko asmotan agertzen gira.

## 2.3 Gazteen parte-hartze eskasa

Ohitura da erraitea gazteak irresponsableak direla bainan guk aldiz, ideia horren faltsukeria erakutsi nahi dugu eta lortu dugun esperientziarekin aintzinera segitu nahi dugu.

### i. Perspektiba desberdin batean izanez

Gehienetan gazteei erraiten zaie sozial mailan ez direla integratzen eta haien inguruan diren gauzetaz ez direla interesatzen. Hori dela eta, erraiten zaie ez dutela haien hiriko bizian parte hartzen bereziki hauteskunde denboran.

Gogo eskasa hori bi arrazoinekin esplika genezakegu. Alde batetik, eskaintza kulturala pertsona zaharrago batzuek proposatzen dute beraz ez da beti egokia publiko gaztearentzat, gazteek interesa desberdinak dituztelako. Bestaldetik, erran dezakegu gazteek nahiago dutela aktore izaitea ikusle izan baino eta horregatik aktibitate guziak ez zaizkie gustatzen.

Arrazoin guzi horien ondorioz, gure aktibitateak, gazteek antolatutakoak izango dira, ez baita gazte bat baino aproposagorik gazteantzako aktibitate egokituak antolatzeko. Honen ahalbidetzeko baionako gazteek auto-gestionatutako toki bat behar lukete.

### ii. Bestetako CEM, esperientzi bat garatzeko

2008ko uztailaren geroztik, M. Jean Grenet, Baionako auzapezak, Baionako besten Komizio Extra Municipal bat sortu du Baionako bestei buruzko pentsaketak eta hobekuntzak egiteko helburuarekin.

Guri iduritu zitzaigun baitezpadakoa zela animazio batzu sortzea Baionako bestetan 17/25 urteko gazteentzat bereziki, asko baitira eta batzutan ez zaielako gauza ainitz proposatzen. Beraz, helburu horrekin, galdegia ginuen CEM komizioan parte hartzea eta arazorik gabe, onartu zuten gure kideetako pertsona bat integratzea heien gazteantzako erreflekzio lanarentzat. Iragan ziren hilabeteetan, kideak komizioari gure baionako gazte elkartearen analisia esplikatu zien eta Baionako bestak hobetzeko genituen proposamenak pasarazi zituen.

Gure helburu bat, gazteantzako erlrelebu bat izaita da. Baionako bestetako antolakuntzarentzat gure proposamenak adierazten segitu nahi dugu, baita urte osoan herriko etxeak eta baionako elkarreek sortzen dituzten animazioentzat ere. Gure hiriaren aktore izan nahi dugu eta ez ikusle simple batzuk. Horregatik, Baionako bestetan bezala, gogoa dugu CEM komisoarekin lan egitea, baionako gazteak dinamisatzeko eta motibatzeko gure hiriko bizian. Gure ustez, esperientzia hori garatzekoa da.

### 3. BITARTEKO : GAZTETXEA

Dinamika baten eraikitzeak eta aintzina eremaiteak gutienezko antolaketa eta funtsezko estruktura bat beharrezkoak dituelako, dinamika instituzio bilakaraztea baitezpadakoa iruditzen zaigu. Horregatik giren gazte dinamikak gaztetxe baten sorrera proposatzen du. Gaztetxearen funtzio nagusia arlo sozial eta kulturalean eragitea litzateke.

Lehenik elkartze eremu bat bezala definitzen dugu gaztetxea: Alde batetik gazteak elgarren artean elkartzeko eremu bat eta bestalde euskal kulturaren inguruau dabiltzan gazteen trukaketa leku bat.

Hala nola gazteek gazteantzat kudeatzen duten eremu batek erresponsabilitateak ekartzen ditu eta gazteen autonomia goseari erantzuteko molde bat da gaztetxearen sorrera. Bertako pertsonen arteko lotura sozialak ahalbidetzen lagunduko du, aldi berean kanpokoei atea zabalik utziz eta auzoko elkarreekin elkarlanerako errectasunak emanez.

Herriaren bizi kulturalean parte hartza dugu helburu, beste elkarte ala Herriko Etxeari ekar dezakegun laguntza proposatuz.

Euskal Herrian gaindi diren beste gaztetxeekin harremanak bultzatuko ditugu, gure Herrian bizi diren gazteen zorteak interesa pizten digulako.

Gazteen arteko harremanak azkartzeaz gain euskal kulturaren sustatzea da gure bi ardatz nagusietarik bestea, batez ere euskara hizkuntzaren normalizazioa gizartean. Izen ere euskarak eremu publikoan hizkuntza ofizial batek ohi duen lekua merezi eta legitimoa duela iduritzen zaigu.

Gaztetxearen sortzera bideratzen giren dinamika ez da adar politiko finko batean oinarritua, nahiz balore eta printzipio batzuk defendatu.

Aterpe(lokaleko) baten eskuratzea onuragarria litzateke dinamikaren estrukturaziorako, bilkura, antolakuntzak errexteko alde batetik eta materialaren atxikitzeko bestalde. Epe luzean gaztetxearen helburua da molde autonomoan ibiltzea (diru mailan), beti ere lokala prestatzen dion Herriko Etxearekin harreman bat atxikiz.

Gaztetxe bat da:

- **Bizi eta adierazpen leku bat**

Gazteentzako bilaketa leku bat da nun bakoitza adierazten ahal den, parte-hartzen eta bere esperientziak partikatzen ahal dituen.

- **Gazteen leku bat, gazteek kudeatuta:**

Gure animazioak lehenik baionako gazteei zuzenduak izanen dira eta ondotik Euskal Herriko eta beste lekuetako pertsonei idekiak. Bestalde, ez dugu ahantziko belaunaldi arteko loturak azkartzea

- **Leku alternatibo bat nun jendeak ez diren etortzen kontsumatzeko baizik eta aktore gisa:**

Gaztetxeak ez du helburu lukratibo bat, egin daitezkeen benefizioak erabiliak izanen liratzke beste aktibitateetan edo lokala obetzeko

- **Leku bat nun euskal kulturak beste kulturak ezagutzen ahal dituen:**

Argi da euskal kultura eta Euskararen babespena gure pundi garrantzuenetariko bat izanen direla. Komunikazioarentzat eta afixetan bi hizkuntzak erabiliak izanen dira. Baiona hiri aberats bat denez kulturen aldetik, kultura hauek ere toki bat ukango dute gurekin

- **Errespetu eta tolerantzia zona bat nun harreman arrazistak eta sexistak ez diren onartuak izanen**

### Gaztetxeko aktibitateak:

- Bertso Eskola

Bertsoak egiten erakasteko leku bat izango litzateke gaur egun baionan ez delako oraindik horrelako estrukturarik.

- Mus txapelketak edo edozein karta jokoren txapelketak

- Kirola txapelketak

Kirol maitaleekin futbola, errugbia eta petanka... joko partiduak giro onean antolatzea dugu helburuetariko bat. Bestalde, iaz egina izan den bezala, joko olinpiadak berriz antolatzeko gogoa dugu, euskal indar jokoak eta joko kooperatiboak eginez.

- Kontzertuak

Askotan egina izan den bezala, musika estilo guzietako taldeak jokaraziko ditugu, izan justu formatzen ari diren gazte taldeak edo talde ezagunak.

- Konferentziak eta debateak

Izan gaur egungo aktualitateko gaia edo gazteak unkitzen dituen problematika batiburuz (drogari buruzko prebentzia, baionako historia...)

- Antzerki eta dantza espektakuluak

- Filma eta dokumentalen proiekzioak

• Jakintza trukaketa aktibitateak gaztetxeko batek talde osoari bere jakintza pasaharazteko. Adibidez, gure taldeko batek aktibitate bat sortuko du autodefentsa erakasteko.

- Jantzi trukaketak eta janari ezagutzak

- Zirko, marrazki, irakurketa, sukaldaritza tailerrak

- Etxeko lanak egiteko laguntza

- Mendi ibilaldiak

- Entsegu gela bat

## 4. ORAIN ARTEKO EKIMENAK

### 4.1 Baionako gazte asanbladaren lehen gaualdia

2008ko urriaren 24ean gauzatu zen gure Gazte Asanbladak antolatu lehen ekintza.

Gaualdi honen helburua zen bertako eta inguruko jendeari erakustea Gaztetxe batek baduela bere lekua Baiona bezalako herri batean.

Gau harten leku ezberdinako jendea erakartzea lortu genuen. (Arrasate, Baiona, Angelu, Miarrizte, Uztaritze...). Leku ezberdinako taldeek parte hartu zuten:

Gaualdiari hasiera baten emateko Trikitilariek alaiturik (Baiona eta inguruoko gazteak) triki poteo bat egina izan zen Baionako ostatuetan zehar. Ondoren giro polit honi segida emateko Patxokin kontzertuak antolatuak izan ziren. Hala nola, Disobedient (Baionako hirukote gaztea), Never Surrender (Arrasatekoak) eta Tortuga Sound System (Baionakoak) taldeekin. Etorritako jendeak bezala musikariek ere gure proiektuan sustengatu gintuzten.

Lehen gaualdiaren dako bikainki pasa zen eta etorritako jendea pozik gelditu zen bildu oihartzunen arabera.



## 4.2 Herri olinpiadak

2008ko urtarrilaren 17 an arratsaldeko 17hetan Euskal Olinpiadak antolatu genituen Herriko Etxearen aurrean.

Bertako gazteen aldarrikapena izan zen Baionan ere gaztetxe bat lortzea.

Giro oso polit batean igaro ziren olinpiadak eta parte hartzaileek asko maitatu zuten: Gazte asanbladako kideez gain herrian bertan paseatzen ari ziren herritar kuriosenak parte hartzera gomitatutu ginituen.



## 4.3 Santa ageda

2009ko otsailaren 7an santa ageda ospatu ginuen. Euskal Herri guzian zehar ospatzen den ohitura zaharreko pestan parte hartu ginuen beste elkarteko batzuetako kideekin. Kantu zaharrez eta bertso berriez epeldu ginituen neguko haize kixkilak hozturiko Baionako karrikak.

#### 4.4 Ihauteriak

2009 ko otsailaren 14ean Baionarat iritsi ziren Ihauteriak. Gazte asanbladeko kideek Pirataz mozorroturik parte hartzea erabaki ginuen.

Gaualdiari hasiera emateko triki poteo batekin hasi ginen.

Gazte ainitzek parte hartu zuen gure animazioan eta bisitatu ginituen ostatu guziek ongietorri eskergarria egin ziguten.

#### 4.5 Baionako pestak

2009ko abuztuaren 9tik baionako besten bukaera arte bertso triki poteoa antolatu ginuen baionako karriketan. Gure helburua Baionako herriak antolatzen duen bestaren aberastea besterik ez zen, programa ofizialari gure ttantxa gehituz. Ostatuz ostate ibili ginen trikitixa eta bertsoen doinuek jendea hurbilarazten eta gidatzen zituztelarik.

#### 4.6 Lehen urtebetetzea

Urriaren 24-an kontzertu bat antolatua izan zen Patxokin. Baionako talde batzuek parte hartu zuten gure kontzertuan.

#### 4.7 Urtatsa

Patxokin antolatu ginuen urtats gaua. Pintxoak eskaini ginizkien pesta egileer.

#### 4.8 Egunkariaren aldeko gaualdia

Egunkari auzia ezagutarazteko hitzaldi gaualdi bat antolatu ginuen.

#### 4.9 Baionako pestak

Donostiako gaztetxe kideekin trukaketa bat burutu ginuen.

#### 4.10 Bigarren urtebetetzea

Napoleon gelan kontzertu batzuk antolatu ginuen talde lokal batzuekin.

## **5. BESTE GAZTETXEEN ADIBIDEAK**

### **5.1 Emaitza Gaztetxea: Kanbo**

Nahiz eta lokala Herriko Etxearena izan, gazte asanbladak du ardura eta ez dute Herriko Etxeari kondurik ematerik (autogestionatua da). Kondu bat ideki dute eta elkarte bat dira. Gela nahi dutenei prestatzen diete, Herriko Etxeari kondurik eman gabe (adb. Xalbador kolegioari kirolarentzat).

Gaztetxea lortzeko proiektu eta helburuak zehazki txosten batean idatzi zituzten eta Herriko Etxeari aurkeztu zizkien.  $\frac{3}{4}$  bilkuraren ondoren Gaztetxea eskuratu zuten.

### **5.2 Bota Gaztetxea: Donaixti**

Norbaitek proiektu bat zuen gasnategi bat egiteko, baina, proiektua bertan behera utzi zuen beraz gazteei prestatzea erabaki zuen. Ez dute alokairurik eta Herriko Etxarekin ez dute harremanik.

### **5.3 Aldaka Gaztetxea: Donapaleu**

Ez dute Alokarurik pagatzen. Partikular baten etxeen dira. Zati bat, herri elkargoak pagatzen du eta beste zatia Herriko Etxeak. Nahi dutena egiteko askatasuna dute.

### **5.4 Kilika Gaztetxea: Azkaine**

Lokala Herriko Etxeak eman die eta gaztetxeko kideek dute autogestionatzen. Urtean zehar pestenkari idekitzen dute, baita beste animazioentzat ere. Horrez gain, entsegu gela bezala erabilia da.

### **5.5 Txir Txor Gaztetxea: Makea**

Gaztetxe hau ere Herriko Etxeak emana da eta gazteek nahi bezala autogestionatzen dute. Horrez gain, ez dute ezer ordaintzen. Pestenkari idekitzen dute eta gaualdi ezberdinak antolatzen dituzte, beste elkarte batzuk laguntzeko. Hala nola Integracion Baltzordea eta beste hainbat talde.



## 6. ONDORIOA

Ondorio gisa, erran dezakegu aipatuak izan diren pundu desberdin hauek untsa erakusten dutela gaztetxe bat beharrezkoa dela Baionako gazteei euskal kultura erakusteko eta aktibitate interesgarri batzuk sortzeko. Leku askotan gaztetxeak aurkitzen dira eta horri esker gazteen artean harreman oso onak sortzen dira. Gure aldetik Baionan, gure elkartea gazteentzako animazioak egiteko ohitura du bainan gure proiektuak hobetzeko eta garatzeko beti lokal bat falta zaigu. Beraz, Herriko Etxeak lokal bat urririk prestatzea nahiko genuke.

## 7. INTRODUCTION

Nous sommes un groupe de jeunes bayonnais qui veut s'impliquer dans la vie culturelle de notre lieu de vie. Nous nous sommes rassemblés pour la première fois en septembre 2008 en invitant amis, proches et voisins. Depuis cet été nous nous sommes constitués en association.

Nous n'avons pas pour objectif de gagner de l'argent ou de faire la fête entre amis. Nous souhaitons impliquer le maximum de bayonnaise et de bayonnais dans notre démarche.

Pour réaliser ces objectifs et regrouper ces initiatives un lieu serait nécessaire. Ce lieu favoriserait l'échange des idées et dinamiserait la vie sociale bayonnaise. Ces activités participatives s'inscriraient dans un cadre culturel en évolution permanente.

« Gaztetxea » signifie « la maison des jeunes » en basque. Un lieu géré par les jeunes et pour les jeunes.

A travers ce document, laissez-nous vous faire part de nos motivations et de nos propositions, ainsi que des événements déjà réalisés. En espérant obtenir votre soutien tout au long de notre démarche.

## 8. LA PROBLÉMATIQUE DES JEUNES

### 8.1 Bayonne, les jeunes et la culture basque

Bayonne est l'une des villes phares du Pays Basque. Capitale du labourd, au patrimoine historique très riche, elle est aujourd'hui le point de rencontre pour une multitude de cultures, parmi elles, la culture basque.

Nous reprenons à notre compte l'assertion de Michel Cahen, chercheur CNRS à l'IEP de Bordeaux, selon laquelle "il n'y a pas une identité basque permanente mais il y a en permanence une identité basque", l'identité est fluide.

Le musée basque en est un exemple. Durant toute l'année il donne l'opportunité aux bayonnais et aux bayonnaises, ainsi qu'aux personnes venues de l'extérieur, de connaître bayonne et le pays basque dans une rencontre entre passé et présent.

Pour nous, la culture basque doit être vivante. Nous saluons en ce sens l'action de nombreuses associations bayonnaises, dont Baionan Kantuz, qui, par le biais du chant, invite ceux qui parlent le basque et ceux qui ne le parlent pas, à partager un moment simple et convivial. On pourrait aussi citer orai bat, le karrikaldi, Hiruki (organisatrice de sagarno eguna ).etc.

Nous pourrions faire une longue liste des animations culturelles basque de Bayonne mais ce n'est pas le but. En marge de cette offre culturelle relativement large mais très traditionnelle, nous proposons de promouvoir une culture basque vivante, non figée, tournée vers l'avenir. Pour ce faire, la question est : " quelle place ont les jeunes à Bayonne et avec quel soutien de la municipalité ?".

Et là, nul besoin d'être statisticien pour dire que la moyenne d'âge des participants à ces activités se rapproche plus des 50 ans que des 20 ans. Il faut tout de même

souligner le travail des organisateurs qui essaient d'impulser la participation des jeunes dans leurs animations.

Les jeunes participent à certaines activités organisé par Orai Bat mais seulement dans un cadre bien précis et ponctuellement. Sagarno Eguna est un des seuls évènements qui rassemble toutes les catégories d'âges ; mais est-ce uniquement par attrait de la culture basque ou est-ce surtout pour le prix attractif du cidre que les jeunes y participent ?. Un peu des deux sûrement car l'on peut voir ailleurs, au Pays Basque, l'engouement autour de certains évènements (pour les groupes de musique, fêtes de village, festival EHZ à Hélette....).

### **8.1.1 Alors, que se passe-t-il à Bayonne?**

Deux raisons principales se dégagent. Tout d'abord, l'offre culturelle n'est pas adaptée aux jeunes et ensuite celle qui existe ne les séduit pas.

Il n'existe aucun lieu spécifique qui leur permettent de se rencontrer, de se réunir, pour discuter leur propre projet culturel plus en phase avec leur vision d'une culture basque actuelle et en accord avec leurs besoins et leurs attentes.

La nécessité d'une structure gérée par les jeunes et basée sur les principes de transmission des savoirs, d'ouverture à tous et de gratuité s'impose donc d'elle-même. Mais en plus d'être la maison des jeunes, le Gaztetxe se doit d'être aussi une maison de la culture.

## **8.2 Le manque d'activité pour les jeunes**

Dans la plupart des cas, les jeunes Bayonnais de 16 à 25 ans sont étudiants, jeunes travailleurs ou au chômage.

Certains d'entre eux ont, en semaine, leurs fins d'après-midi libres, soit parce qu'ils sortent de cours, soit parce qu'ils ont terminé leurs journées de travail. La majorité d'entre eux ont également leurs week-ends libres. Nous voulons montrer par là que les jeunes de Bayonne ont assez de temps pour pratiquer des activités annexes.

Personne ne met en doute l'existence d'une demande concrète. À un certain niveau, les clubs sportifs de la ville y répondent et le nombre d'adhérents en est la preuve. Mais les offres se font plus rares si on veut faire d'autres choses.

Pourtant, il nous semble que la variété des activités est une des bases de l'équilibre social. Mais surtout, à notre avis, il manque un lieu où les jeunes peuvent se rencontrer pour débattre des problèmes de société qui leurs sont propres.

Autre point noir : l'aspect financier. Comme tout le monde le sait, la situation économique des jeunes n'est généralement pas brillante. Ils sont souvent sans travail ou titulaires de contrats précaires. Dans une situation de crise où le pouvoir d'achat est en constante baisse, la pratique d'activités payantes est une charge financière très lourde pour eux mais aussi pour leurs familles.

Un autre sujet nous préoccupe : le manque d'échange entre les jeunes et leur méconnaissance les uns des autres. Aujourd'hui, hors de leurs lieux d'étude, ils ne se retrouvent que dans les soirées du jeudi et du vendredi. Or, si l'on veut maintenir le lien social dans la cité, il nous semble primordial de développer des activités pouvant être intergénérationnelles et qui contribuent à améliorer les rapports sociaux afin de promouvoir le « mieux vivre ensemble » et favoriser la solidarité et la convivialité dans un cadre qui ne soit pas uniquement festif.

### 8.3 Le manque de participation des jeunes

Il est un lieu commun de dire que les jeunes sont irresponsables. Par notre démarche, nous voulons aller à l'encontre de cette idée reçue et au vu des problématiques évoquées de présenter une de nos expériences concrète qui reste à développer.

#### 1.3.1 Se placer dans une perspective différente

On reproche souvent aux jeunes de ne pas s'intégrer au reste du corps social et de ne pas s'intéresser à ce qui les entoure. On leur reproche aussi de ne pas prendre suffisamment part à la vie de leur cité, notamment pendant les élections.

Ce manque de participation peut s'expliquer d'une part par le fait que l'offre culturelle est souvent proposée par des personnes plus âgées et donc pas toujours adaptée à un public jeune dont les centres d'intérêt sont divers et varient

rapidement au grès des modes. Et d'autre part, par le fait que les jeunes préfèrent être acteurs plutôt que spectateurs et apprécient peu les activités contraignantes.

Notre démarche se place donc dans une perspective où les événements sont organisés par des jeunes pour d'autres jeunes. Car qui mieux que des jeunes pour choisir les groupes musicaux, les spectacles de danses, les conférences-débats... les plus à même d'intéresser d'autres jeunes et d'être les plus pertinents. Dans cette optique, nous estimons qu'il faut proposer aux jeunes bayonnais un espace pour s'auto-organiser afin de les responsabiliser.

### **8.3.2 La CEM des fêtes, une expérience à développer**

Depuis juillet 2008, M. Jean Grenet, maire de Bayonne a mis en place la Commission Extra Municipale des fêtes de Bayonne dont l'objectif est de mener une réflexion sur le contenu des fêtes de Bayonne.

Il nous paraît indispensable de proposer des animations spécifiques au public jeune 17/25ans, très nombreux durant les fêtes et parfois un peu désœuvré. Nous avons donc sollicité la commission animation de la CEM qui a accepté d'intégrer au travail de réflexion en cours une de nos représentantes comme personne-ressource concernant les jeunes. Au cours de ces derniers mois, elle a transmis notre analyse en tant qu'association de jeunes bayonnais sur le déroulement des fêtes mais aussi proposé des améliorations qui de notre point de vue sont importantes.

Nous entendons être un relais auprès des jeunes, et surtout, une force de proposition concernant l'organisation des fêtes mais aussi le reste de l'année dans la vie associative bayonnaise. Nous désirons être acteurs de la vie locale et non simple spectateurs. C'est pour cela que comme pour les fêtes de Bayonne, avec la CEM, nous sommes prêts à nous engager pour dynamiser la jeunesse bayonnaise afin qu'elle prenne part activement à la vie locale. Cette expérience reste encore à développer.

## 9. SOLUTION: UN GAZTETXEA

La réalisation d'un projet et sa mise en oeuvre nécessite un minimum d'organisation et de structuration. Pour ce faire, nous proposons la création d'un Gaztetxe, outil indispensable pour structurer toutes les énergies en devenir.

La fonction principale du Gaztetxe sera de promouvoir les rencontres entre jeunes de tous horizons et de favoriser les échanges dans tous les domaines sociaux et culturels.

Ces différentes rencontres et échanges impulseront une dynamique qui permettra la mise en place de plusieurs activités positives pour la ville. Nous avons pour but d'être acteur de la vie culturelle bayonnaise.

Nous voulons aussi encourager les liens entre les différents Gaztetxe et associations du Pays Basque pour renforcer la relation côte/intérieur.

Au-delà, du renforcement des liens entre les jeunes, un autre de nos axe de travail est le soutien à la culture basque, en particulier par l'utilisation quotidienne de la langue basque dans la société.

L'obtention d'un local serait une première étape pour la structuration de cette dynamique et faciliterait la mise en place et l'organisation en général ( réunions, matériel ... )

### 9.1 Les principes de base incontournables pour un Gaztetxe

Un Gaztetxe est :

**-Un lieu de vie et d'expression:**

Un lieu de recherche entre les jeunes où chacun pourra s'exprimer et partager ses expériences. La participation sera ouverte au plus grand nombre.

**-Un lieu pour les jeunes géré par des jeunes (mais pas uniquement) :**

Nos animations seront en priorité à destination des jeunes de Bayonne puis des alentours du Pays Basque ou d'ailleurs. Nous désirons cependant développer les liens intergénérationnels.

**-Un lieu alternatif où les gens ne viennent pas en tant que consommateurs mais comme acteurs :**

Le Gaztetxe est une structure à but non lucratif ; les éventuels bénéfices des animations seront réinvestis pour d'autres activités ou pour l'amélioration du local.

**-Un lieu où la culture basque rencontre les cultures d'ici et d'ailleurs :**

Il est bien sûr évident que la culture basque et l'Euskara en particulier occuperont une place primordiale. Néanmoins, le bilinguisme sera le maître-mot, tant dans la communication quotidienne que dans l'affichage. Baiona étant une ville riche de beaucoup de cultures, elles trouveront aussi une place parmi nous.

**-Une zone de tolérance et de respect où les comportements racistes et sexistes ne seront pas admis :**

Une vigilance particulière existera pour éviter toutes tensions et garder ce lieu convivial et ouvert.

**Proposition d'activités :**

- Bertsu eskola (école d'improvisation en basque)

Cours d'improvisation de vers en basque. Aucune structure bayonnaise n'accueille à l'heure actuelle ce type d'activité.

- Tournoi de mus (ou autres jeux de cartes)

- Tournoi sportifs

Pour les amateurs, dans la convivialité, foot, rugby, pétanque, mais aussi sur le modèle des olympiades que nous avons organisées l'année dernière, avec jeux de forces basques et jeux coopératifs.

- Concerts

De tous styles de musiques, avec de jeunes formations qui débutent, mais aussi des groupes plus connus.

- Conférences, débats

Sur des sujets d'actualité ou des problématiques qui touchent plus particulièrement les jeunes (prévention drogues, alcools mais aussi sur l'histoire de Bayonne ...)

- Spectacles de théâtre, danse...

- Cours de danse (danse Basque, danse moderne...)

- Projection de films, documentaires

- Ateliers de découverte et d'échanges, le but étant de permettre la transmission du savoir d'une personne au profit du reste du groupe, ex : initiation à l'autodéfense
- Foires, échanges
- Atelier de cirque, dessin, de lecture, de cuisine...
- Organiser des après-midis de soutien scolaire gratuit
- Organiser des randonnées en montagne

## 10. LES INITIATIVES ORGANISÉES JUSQU' A MAINTENANT

### 10.1 La première soirée de Baionako Gazteak à Baiona

Baionako Gazteak est une association qui oeuvre pour la création d'un Gaztetxe à Bayonne.

Le premier évènement que nous avons organisé s'est déroulé le 24 octobre 2008.

Le but de cette soirée était de montrer aux gens d'ici et des alentours qu'un gaztetxe a toute sa place dans une ville telle que bayonne.

Ce soir là, nous avons réussi à rassembler des jeunes de différents endroits : BAB, Uztaritz, Saint Pierre d'Irube, Bidache, Saint Palais, Tarnos, Mondragon. Des joueurs de triki de Bayonne ont animé un défilé au petit Bayonne auquel tout le monde a participé dans la bonne humeur. Pour continuer cette ambiance festive, nous avions prévus un concert au Patxoki, avec DESOBEDIENT (jeune trio bayonnais), NEVER SURRENDER (Mondragon), TORTUGA SOUND (Bayonne).

Les personnes et les groupes présents étaient aussi là pour soutenir notre projet.

Cette première soirée s'est très bien déroulée et d'après les échos que nous avons eu les gens étaient contents.



### 10.2 Olympiades

Le 17 janvier 2008 nous avons organisé des Olympiades sur la place de la mairie, à partir de 17h, dont le thème était « jeux gratuits sans obligation d'achat ».

L'ambiance était chaleureuse et tous les passants, dont M.le Maire ont été invité à participer.



### 10.3 Santa Ageda

Le 7 février 2008 nous avons fêté Santa AGEDA (Sainte Agathe), nous avons participé avec d'autres associations (la gau eskola de Bayonne) à cet événement qui se fête dans tout le Pays Basque. Nous avons réchauffé les rues de Bayonne glacées par le vent hivernal avec des chants anciens et des bertsus improvisés.

### 10.4 Carnaval

Le 14 février 2009, le carnaval est arrivé à Bayonne et le thème de la soirée que nous avons choisis était les « Pirates ».

Pour commencer la soirée nous avions organisé un triki poteo (défilé convivial de bars en bars animé par des joueurs de triki). Beaucoup de jeunes ont repris notre thème et ont participé à la soirée déguisé en pirates et tous les bars visités nous ont accueillis avec plaisir. Nous avons alterné chants, bertsus et danses.

### 10.5 Les fêtes de Bayonne

Le 31 juillet 2009, nous avons organisé un bertsu triki poteo dans les rues de Bayonne et notre but était simplement d'enrichir la programmation des fêtes de Bayonne en ajoutant notre bonne humeur à celle des autres participants.

### 10.6 Premier anniversaire

Le 24 Octobre, concert pour notre premier anniversaire au Patxoki, avec des groupes bayonnais.

### 10.7 Reveillon du nouvel an

Apéro pintxos convivial et chaleureux par ces froides soirées d'hiver.

### **10.8 Soirée en faveur du journal Egunkaria**

Soirée débat organisée pour faire connaitre le procés du journal basque Egunkaria.  
Intervention de deux accusés membres du journal.

### **10.9 Fêtes de Bayonne**

Journée de discussions et d'échanges entre le gaztetxe de Donosti et notre association.

### **10.10 Deuxième anniversaire**

Concert à la salle Napoléon pour fêter les deux ans de notre association avec des groupes locaux.

## 11. EXEMPLE DES AUTRES GAZTETXE

### 11.1 Gaztetxe Emaitz : Cambo les bains

Le local est mis à disposition gratuitement par la Mairie et l'assemblée des jeunes de Cambo a l'entière responsabilité de la gestion de ce lieu. Une association a donc été créée et un compte bancaire ouvert. Leur local n'est pas seulement utilisé pour leurs propres animations mais peut être aussi prêté occasionnellement à d'autres associations, sans obligation d'informer la Mairie (par exemple au Collège Xalbador pour les cours de sport).

### 11.2 Gaztetxe Bota : Saint-Just-Ibarre

Avant la création du Gaztetxe, ce lieu devait devenir une fromagerie mais ce projet n'a pas abouti. Le propriétaire a décidé de prêter gracieusement le local aux jeunes qui n'ont aucun contact officiel avec la mairie de Saint-Just-Ibarre.

### 11.3 Gaztetxe Aldaka : Saint Palais

Le local appartient à un particulier et est mis à disposition des jeunes de Saint-Palais. Une partie du loyer est financée par la Communauté de Communes et l'autre partie par la mairie de Saint-Palais. Le local leur est accessible à tout moment et ils ont la plus grande liberté pour organiser toute activité.

### 11.4 Gaztetxe Kilika: Ascain

Le local appartient à la mairie et les jeunes y organisent différentes activités et soirées.

### 11.5 Gaztetxe Txir Txor : Macaye

La mairie laisse un local à disposition des jeunes qui le gèrent de manière autonome.

## 12. CONCLUSION

Ce document avec ces différents points détaillés démontre bien la nécessité de créer à Bayonne, un Gaztetxe autour de la culture basque. Les activités et animations que nous proposons d'organiser doivent renforcer la participation et l'intérêt que les jeunes portent à leur ville. Dans un certain cadre, certaines actions peuvent être menées en concertation avec la Mairie.

Le groupe de jeunes que nous sommes, porteur de ce projet est particulièrement motivé et conscient des responsabilités que cela engage. L'expérience des évènements que nous avons organisé et qui se sont, tous, très bien déroulés nous ont été bénéfiques. Les diverses expériences positives de Gaztetxe dans les autres villes et les bonnes relations avec les municipalités nous renforcent dans nos convictions.

Nous proposons donc un accord avec la Mairie de Bayonne, sous la forme d'une convention renouvelable avec notre association, pour la mise à disposition d'un local adapté à la création du

**“ Baionako Gaztetxea ”.**